

Mondragon Unibertsitateko ikertzaileen egonaldia Alemaniako Furtwangeneko Unibertsitatean

2011/06/08

Maiatzaren 30etik ekainaren 3ra, Mekanika eta Industria Ekoizpeneko departamentuko kideak diren, Raul Fernandez eta Arantzazu Iriarte Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikertzaileak, Furtwangeneko Unibertsitatean egonaldia egin dute .

Bisitan zehar Nazioarteko harremanetarako dekanordea den Rüdiger Kukralekin elkartu dira, bi unibertsitateen artean ikasleak trukatzeko hitzarmen bat sustatzeko helburuarekin, eskainitako titulazioetan oinarrituta.

Horrez gain, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikerlariak artezketa prozesuari buruzko bi mintegi eman dituzte Prozesu Urratzaileak lantzen dituen eta Taghi Tawakoli irakasleak zuzentzen duen Furtwangeneko Unibertsitateko KSF Institutuan. Bi mintegien gaiak izan dira artezketa prozesuaren modelizazioa da eta harri urratzaileen errendimenduaren azterketa.



Raúl Fernández eta Arantzazu Iriarte Furtwange Unibertsitatea bisitatzen.